

Donostian, Diputazioan, bildu dira: Etxaide jauna, buru, Lekuona, Irigaray, Villasante, Arrue, Oleaga euskaltzaiñak. Zugasti, Alvarez Emparanza eta Irigoyen urgazleak.

Aurreko agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Arruek diño Mitxelena jauna Madrilen dala eta Universidade Centralean tesis bat aurkeztu dauela euskal-fonetikaren gaiñean doktoradua egiteko eta emon deusien notea izan dala. Nabarmena eta sari berezia. Zorionik beroenak emon bekioz.

Migel Anabitarte jaunak zuzendu dauen karta bat irakurri da. Gerra aurrean Euskaltzaindiak emoneko titulu bat eukala diño, euskerearen jaube dala adierazoten dauena eta eskatuten dau ia barriztau leion. Erantzun bekio Donostiako euskaltzainñen bategaz egon daitela eta emon bekio eskatuten dauena.

Bilboko Ahorrokaxeak bost milla peseta eskeiñi deutsoz Euskaltzaindiari iztegi lanetarako.

Pedro Sancristobal jaunaren karta bat irakurri da eskerrak emonik Euskaltzaindiak idatzi deusanagaitik. Aita Manzisidor-ek *Santu bizitzak* liburu argitaratu barria bialdu dau. Eskerrak eta zorionak emon bekioz egin dauen lan bikaiñagaitik.

Urtarrileko 4-an Euskaltzaindiak Bilboko Arriaga Teatroan, bertsolari, euskal teatro eta euskal kanten bidez izkuntzea indartu leitekeala adierazorik jaialdi bat egin dau. Oleagak diño oso ondo urten dauela, Eskerrak eta zorionak emon bekioz Irigoyen jaunari eta bere laguntzailleeri lan eder eta ondo zuzenduagaitik.

Orainarte Mitxelena jauna iztegirako gaia biltzen ibili da, baiña asi da idazten. Arrue jaunak bere partez dakaz leenengo orrialde batzuk. Oso lan ederra izango dalako ustea indartu egin jakie batzarkideeri.

Domingo Agirre novela-sarira lau novela etorri dira. Oleaga, Arrue, Irigaray ta Lekuona jaunak izentetan dira erabagi daien zer egin, ezarri zirean puntuak gogoan izanik.

Gasteizen, bere bizitzan euskaltzaindikoa izan zan Aita Raimundo Olabideri gorazarre bat egiteko giroa sortu da berak euskerara itzuli eban Biblia argitaratu barria dalarik. Oso ondo deritxie bertan Euskaltzaindiak jaialdi bat prestau daien bere omenez. Olan egin bedi.

Abenduko 13 eta 14-an Euskaltzaindiak Bilbon prestatuiko batzarren gaiñean berba egin da. Euskaltzaindiak euskerearen etorkizuna sendotuteko eta gidatuteko

asmoagaz zimentarri batzuk ezarri bear ditu. Urrengo batzarrera ekarri bitez zeaztasun batzuk onen gainean.

Irigoyenek diño Aita Cortabitarte-k dirua eskeini deutsola Euskaltzaindiari Bizkaiko ume euskalduneri sari batzuk emoteko, esamiñak egiñik. Zimentarri batzuk onartu dira. Ona emen:

Euskal sariketea amar urtetik amairu urterako ume bizkaitarrentzat

1. Euskaltzaindiak sariketa bat iminten dau Bizkaiko umeentzat 1960-gko. Maiatzean egiteko adierazoko dan egun batean. Izenak bialtzeko epea amaituten dan orduan amar urtetik amairu urtera izan bear dabe. Zimentarriak oneik dira:

2. Sariak izango dira: leenengoa milla pesetakoa eta amazortzi sari bosteun pesetako. Sariez gainera aipamen bereziak egin leiez nabarmenduten direan umeeri.

3. Sariketea esamiña bat euskeraz egiñik erabagiko da eta gaiak izango dira: 1. Kristiñau dotrinea. 2. Bizkaiko erri-bertso-sorta bat Euskaltzaindiak argitaratuko dauena. Buruz ikasi bear izango dabe edozein bertso-soñu erabillirik. 3. *Abarrak* Euskaltzaindiak argitaratu eban ipuin-sorta E. Bustinza-rena. Ipuin bat idatzi bear izango dabe buruz. 4. Bakotxa bizi dan erriaren gainean zerbait idatzi. Erakusbide modura gai batzuk emoten dira libertade osoagaz erabilli aal izango direanak, bai zuzenean edo bai zearka, eta guztiak edo batzuk bakarrik: a) elexea, b) erria, d) base-riak, e) fabrikako, f) dendak eta merkataritza, g) arrantzua, h) labrantzea, i) gntea eta oiturak, j) bidaje batean sentidu doguna, eta abar. 5. Domingo Agirre-ren *Kresala* novelea iminten da liburu irakurgarria legez. Batez be idazteko oiturea artzeko, baiña ezta ezer itanduko bere gainean.

4. Batzarra Euskaltzaindiak izentauko dau egingo dan eguna adierazoten danean.

5. Izenak 1960 Aprilleko 15-erarte artuko dira Euskaltzaindiaren etxean (Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6, BILBAO). Izena, deitura bi, bizilekua eta jaioteguna adierazo behar dira.

Irigoyenek diño Abenduko batzarrearen ostein, Carlos Gonzalez Echegaray jaunak, Bilbon Diputaziñoeko bibliotekako zuzendari denak, adierazo eutsola Filologia Seminario bat sortu leitekeala bertan, eta orretarako Euskaltzaindiak Bizkaiko Diputaziñoari idatzi deion komeni dala, Zuzendu bekio, bada, Bizkaiko Diputaziñoari karta bat Euskaltzaindiaren aalegiñak eskeifirik asmo orretarako.

Irigoyenek diño Bizkaiko Ahorrokaxeak euskerazko erradio-emisiño batzuk pagau gura dituala. Ain zuzen be Bizkaiko bertsolarien lenengo sariketea gertau ostein karta bat idatzi eutson Euskaltzaindiak zerbait egin eien baserriaren alde eta areri erantzunik erradio-emisinoak egitea erabagi dabe. Estudiau bedi arazo au zelan zuzendu.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.